

## **KONTROL MOZIOA**

### **ARRAZAKERIAREN KONTRAKO POLITIKA BATERATUAK BIDERATZEN EZ DIRELA ETA**

Naiara Sampedro Perezek EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko martxoko Pertsonen Zerbitzu Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

## **JUSTIFIKAZIOA**

2016ko apirilaren 27ko udalbatzarrean, aho batez, bi puntu onartu genituen. Alde batetik, arrazakeriaren eta xenofobiaren kontrako salaketa lana, sentsibilizazio kanpainak eta ekimenak hirian ugaritzea, talde politiko eta hiriko eragile zein herritarren arteko bateratasuna eta haien parte hartzea bermatuz. Eta bestalde, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Kontrako Nazioarteko Egunean, ahalegin berezia egitea hiriko eragile eta talde politikoekin adostasunak bilatzeko eta herritarrak gonbidatuko diren adierazpen instituzionalaren onarpena eta irakurketa publikoa egiteko.

Aldiz, elkarbizitzarako eta gizarte eraldaketarako irimotasunez errotik hartu beharreko arrazakeria eta xenofobiaren kontrako politika bateratuen akordioa betetzen ez zela-eta, 2016ko ekainean eta abenduan, Udal Gobernuak berriro interpelatu behar izan genuen.

Horiek nahikoa ez, 2017. urteko Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Kontrako Nazioarteko Egunean, zenbait urteren ondoren, lehen aldiz, ez da irakurketa publikorik egin eta talde politikoekin elkarlanik ez da bideratu.

Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

## **KONTROL MOZIOA:**

- 1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari 2016ko apirilaren 27ko udalbatzarrean aho batez onartutako kontrol mozioa bete dezan.
- 2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Kultur Aniztasun Bulegoari dagokion programa betetzeko beharrezkoak diren ordezkapenak eta baliabideak berma ditzan.

EH Bildu talde politikoa  
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus) -  
20003 Donostia

3.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari apirila bitartean, talde politikoak bilera batera deitu eta Kultur Aniztasun Bulegoan kudeatzen ari den jardueraren berri emateaz gain, Elkarbizitzarako Planaren inguruko garapenaren berri ematea.

4.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, praktika on gisa, Kultur Aniztasun Bulegoko web orrian publikatzen diren programa eta oharren berri ere Donostiako Udaleko web orrian ([www.donostia.eus](http://www.donostia.eus)) ematea, beste zenbait gairekin egiten den moduan.

Donostian, 2017ko martxoaren 24an



Naiara Sampedro Perez  
EH Bilduko zinegotzia